

Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Ahal den legez

A

zkenaldi honetan, Ezker Abertzalearen hainbat aldarrikapen legedi ezberdinetara egokitzen ikusi ditugu. Eskubideez harago, eta eskaeren zilegitasuna ukatu gabe, legedi ezberdinek eskaintzen dituzten bitartekoak euren helburu eta praktika politikorako baliagarritzat jo dituzte. Urte bat pasa da Alderdien Legearen ondorioz hartutako illegalizazio prozesu luzeari aurre egiteko Ezker Abertzaleak Sorturen estatutuak aurkeztu zituenetik. Bertan, Iñigo Iruinek alderdi berriaren legezketasunaren defentsa argia egin zuen. Juridikoki baldintza guztiak betetzen dituenaren zalantza inork gutxik izango du, eta Konstituzio Auzitegiaren ebazpenak legezketasun hori berretsiko duenaren ideia ere orokorra da.

Presoen auzian ere, badirudi maximalismoak atzean utzi direla. Eragileak eta hainbat politikari legea betetzeaz mintzo dira, (besteek) legea bete dezatela eskatuz. Batzuk presoei begira, eta beste batzuk Espainiako Gobernuari begira, erantzukizun eta ardurak besteari egotziz. Inoiz baino gehiago zainduko dute joko dialektikoa; tinkotasuna islatu behar izaten da horrelako auzi konplexuetan, “besteak” mugitzea lortu denaren garaipena. Zentzu horretan, Espainiako



IÑIGO AZKONA

Gobernuak kartzela politikaren malgutasunaz eta presoei dagozkien onuraz eta esku-bideei buruz hitz egin ordez, bergizarteratzea, barkamenaren ezinbestekotasuna eta neurrien izaera individuala nabarmenduko ditu. Ezker Abertzaleak eta presoen kolektiboak aldiz, testuinguru berrian urrunketa eta sakabanaketaren legezketasun eza azpimarratuko dituzte, legez dagozkien kartzela onurak ere aldarrikatuz; besteak beste, gaitasun larriak eta zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenei begira. Nanclareskoen bidea aldiz, hobe ez aipatzea.

Azkenean, uste osoz, ala ezinbestean, denek legea bete beharko dute. Pragmatismoak ez du zertan kolektibo baten duintasuna kolokan ipini, eta egoerak eskatzen duen mailan jardun beharko da, garai bateko ortodoxiatik aldenduz. Alderdi legala izateko Ezker Abertzaleak legezko bitartekoez baliatzea ontzat eman duen bezala, EPPK-k ere bide horri jarraitu beharko duela dirudi. Seguruenik ez da askok irudikatu zuten irtenbidea, baina Kolektiboaz gain, ehundaka gizabanako eta familien sufri-mendua daude jokoan.

Erresistentzia ikur bat baina gehiago dira. Seguruenik kalean gauden asko beranduegi ohartu bagara ere. ■



« Pragmatismoak ez du zertan kolektibo baten duintasuna kolokan ipini, eta egoerak eskatzen duen mailan jardun beharko da, garai bateko ortodoxiatik aldenduz »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



polito doa esango luke nire lagun bizkaitarrak, bere talaia-tik Urkiola, Barazar eta Gorbea zuri ikusiko lituzkeen bitartean. Santa Agata zuen gustuko, San Mamesera kantuz egiteko parada ematen ziona. Eta entzun ditugunekin, ez zen koblarik faltako, koblakari gai bilatzaile nagienari ere ez zion zeri kantatu faltako, bat bestearen azpian pilatzen joan dira Urkulluk hasi eta Jaurilaritzatik erantzundakoak. Saltzaile dorpeenen eruditik ari zaizkigu. Batek, ez ezazue horrena erosi, nik hortik dastatutako koinatua badut, eta desesperatuta bizi da horien jardunaz. Besteak, ez ezazue horre-

Astea

na sinetsi gezurretan ari zaizue, horrek ez dauka koinaturik-eta. Gaitzerdi txokoren bateko liskarra balitz, koadrilen arteko disputan ariko balira, bata besteari erronka joz balebiltza. Gure sosei buruz ari dira. Urkulluk, Lopezen Jaurilaritzak erreka jo duela. Lopezek, aurrekoek erosi gabekoak ordaindu zituztela eta sosen norakoaz ez dakitela. Eraman zituztela alegia deusen truke. Eta hau guztia, prentsa bilduz, publiko egina. Norbaitek argitu beharko ditu gauzak, batek bere koinatua eta besteak falta diren sosen norakoa agerrarazi. Dagoeneko ados dira biak ezkutuan gordetzeko. ■

